



I. TITULUA. IZENA, IKURRAK, XEDE SOZIALA, EREMUA ETA HELBIDEA.....	2
II. TITULUA. BAZKIDEEI BURUZ	2
1. kapitulua Onartzea eta kaleratzea.....	2
2. kapitulua Bazkideen eskubideak eta betebeharrak.....	3
3. kapitulua Diziplina-araubideari buruz.....	4
III. TITULUA. SOZIETATEAREN GOBERNU ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZ	6
1. kapitulua Batzar Nagusiari buruz.....	6
2. kapitulua Zuzendaritza Batzordeari buruz.....	8
3. kapitulua Lehendakaritzari eta Lehendakariordetzari buruz.....	11
4. kapitulua Idazkaritzari buruz.....	12
5. kapitulua Diruzaintzari buruz.....	12
6. kapitulua Kideei buruz.....	13
IV. TITULUA. ATALEI ETA ORDEZKARIEN BATZORDEARI BURUZ.	13
V. TITULUA. SOZIETATEAREN BESTE ORGANOEI BURUZ.	14
VI. TITULUA. HAUTESKUNDE-ARAUBIDEARI BURUZ.....	14
VII. TITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOARI ETA ONDAREARI BURUZ.	15
1. kapitulua Araubide ekonomikoari buruz	15
2. kapitulua Ondareari buruz.....	16
VIII. TITULUA. BAZKIDE-EGOERA LAGATZEKO ESKUBIDEARI BURUZ.....	16
IX. TITULUA. SOZIETATEAREN LIBURUEI BURUZ.....	17
X. TITULUA. SOZIETATEAREN DESEGITEARI BURUZ.	17
AZKEN XEDAPENA.....	18





I. TITULUA IZENA, IKURRAK, XEDE SOZIALA, EREMUA ETA HELBIDEA.

1. artikulua. - Sozietateak, izaera zibilekoa, "AGRUPACIÓN DEPORTIVA SAN JUAN/DONIBANE KIROL ELKARTEA" du izen, eta nortasun juridiko propioa, jarduteko gaitasuna eta iraupen mugagabea ditu.

Estatutu hauek arautzen dute Sozietatea, aplikagarri zaizkion lege eta xedapenak alde batera utzi gabe, eta bere gain hartzen du Sozietateak parte hartzen duen jarduerari buruzko arauak betetzea.

Sozietatearen ikur bereizgarriak kolore berdea eta zuria, ereserkia, bandera eta armarrria dira.

2. artikulua - Sozietateak xede hauek ditu:

- a) Bazkideei aisialdirako eta olgetarako zentro bat ematea, bai eta horretarako instalazio egokiak ere.
- b) Bazkideen artean kirolen praktika eta jarduera fisikoa zein olgetakoa sustatzea, bai banaka, bai taldeka edo era antolatuan, bazkideek Sozietateko talde, ekipo eta ataletan parte hartuz, bakoitzaren berezko zaletasunekin bat, instalazio egoki eta nahikoak lortuta horretarako.
- c) Kultura-, olgeta- eta gizarte-arloko ekimenei erantzutea eta haien inguruko jarduerak sustatzea, instalazioak eta dituen bitartekoak eskura jarritz.

3. artikulua Jarduteko eremua Iruña da, baina Sozietateak beste edozein tokitan egiten ahal izango ditu bere xede soziala betetzeko behar diren jarduera guztiak.

4. artikulua Helbide soziala haren instalazio sozialetan dago, Iruñeko Antso Azkarra etorbidean, zenbaki gabe (31011).

5. artikulua Sozietateak ez du irabazi-asmorik, eta bere jarduerak eta funtzionamendua printzipio hauetan oinarritzen dira: askatasuna, berdintasuna, justizia, elkartasuna eta barne-demokrazia.

II. TITULUA. BAZKIDEEI BURUZ

1. kapitulua Onartzea eta kaleratzea.

6. artikulua - Bazkide izango dira, izaera hori dutenez gain, estatutu hauek onartu eta baldintzak (bazkideetza onartzen bada sarrera-kuota ordaintzea, besteak beste, ezinbestekoa dena) betetzen dituztenak, hala eskatu badute eta Zuzendaritza Batzordeak onartu baditu.

Edozein arrazoi dela-eta Sozietatetik kanpo geratu diren bazkideek eskuratutako eskubide guztiak galduko dituzte. Beraz, berriro sartu nahiko balute, bazkide sartu berriei eskatzen zaizkien baldintza guztiak bete beharko dituzte, sarrera-kuotaren ordainketa barne, edo Sozietatetik kanpo geratu zenetik ordaindu ez dituzten kuoten ordainketa, eta, gainera, kanporatuak izan baziren, Batzar Nagusiak onartu beharko ditu.





Bazkide-kategoria edo -mota hauek daude:

KATEGORIA	ADINAK
HELDUAK	18 urte edo gehiago
GAZTEAK	14 eta 17 urte bitarte (biak barne)
HAURRAK	6 eta 13 urte bitarte (biak barne)
BENJAMINAK	2 eta 5 urte bitarte (biak barne)

7. artikulua - Eskubide osoa izateko, beharrezkoa da pertsona fisikoa izatea, adinez nagusia eta jarduteko gaitasuna izatea.

Sozietatean haurren eta benjaminen kategorietan sartzeko, nahitaezkoa da aita, ama edo legezko ordezkaria ere bazkide izatea.

Bazkide guztiei txartel bat emango zaie, erabilera eskusibo eta pertsonalekoa, bazkide direla egiaztatu ahal izateko. Txartel hori aurkeztea edo beste identifikazio-sistema bat derrigorrezkoa izango da instalazioetan sartzeko eta enplegatuek edo baimendutako langileek autentifikatzeko eskatzen duten guztietan.

8. artikulua- Arrazoi hauetako edozein izango da bazkide izateari uzteko arrazoi:

- Heriotza.
- Borondatezko baja.
- Lau hileko kuota ez ordaintzea, jarraian ala ez, baldin eta ordaintzeko eskatu bazaio alde zurretik, epe eta guzti. Sozietateko artxiboetan ageri den helbidean jakinaraziko zaio interesatuari.
- Kanporatzea, diziplinazko arrazoietan oinarrituta, estatutu hauetan aurreikusitako moduan, betiere horretarako espedientea egin ondoren eta bazkideari entzun ondoren.

2. kapitulua Bazkideen eskubideak eta betebeharrak.

9. artikulua.- Bazkide guztiak, beren kategoriaren barruan, berdin tratatuko dira, inolako bereizkeriarik gabe sexu, arraza, erlijio, ideologia, hizkuntza edo nazionalitateagatik, edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal edo sozialagatik.

10. artikulua - Eskubide osoko bazkideek, oro har, honako eskubide hauek dituzte:

- Sozietatearen xedea osatzen duten helburuak lortzen parte hartzea.
- Sozietatearen instalazioak eta zerbitzuak segurtasun- eta higiene-baldintzetan erabili eta baliatzea; beren ondorengoekin edo mendekoekin egin ahal izango dute, bi urtetik beherakoak badira betiere, doan sartu ahal izango baitira instalazioetara adin horretara iritsi arte.
- Zuzendaritza Batzordeari iradokizunak, proposamenak eta kexa oinarritunak egitea.
- Entzunak izatea, zehapen-espedientea izapidetzen bazaie.





- e) Informazio ekonomikoa jasotzea, aldez aurretik eskaera arrazoitua eginda, eta aurreko ekitaldiko kudeaketa-kontuen laburpena eta urteko ekitaldiko aurrekontu-proposamena izatea ere Batzar Nagusiaren aurretik.
- f) Sozietatearen jardueren berri izatea eta bere organoen bilkuren aktak aztertzea.
- g) Estatutuen kontrakoak jotzen dituen erabaki eta jarduketak aurkaratzea, haiek hartu eta hogeita hamar eguneko epean.
- h) Beren bazkide-izaera, bai eta legez beren mende dauden adingabeena ere, haiek ere bazkide badira betiere, bazkide ez diren hirugarrenei lagatzea; haren truke, eskatzaile sartu berriak ordaintzen duen zenbateko ekonomikoaren zati bat jasoko du bazkide lagatzaileak, eskubide hori arautzen duten estatutu-arauekin bat.
- i) Modu antolatuan parte hartzea, atal, talde eta ekipoen bitartez, Sozietatean egiten diren kirol-, olgeta- eta gizarte-jardueretan, Zuzendaritza Batzordeak zehazten dituen arau zehatzekin bat.
- j) Hautesle eta hautagai izatea Sozietatearen gobernu- eta administrazio-organoetarako, estatutu hauetan zehaztutako moduan.
- k) Nahi dutenean, beren ezkontidea, seme-alabak eta gurasoak bazkide egitea, eta Sozietatetik libreki baja ematea.

11. artikulua.- Gazte, Haur eta Benjaminen kategorietako bazkideek Sozietatearen instalazioak erabiltzeko eta jardueretan parte hartzeko eskubidea dute beren adinerako egokia den moduan eta Zuzendaritza Batzordeak hartzen dituen berariazko arauekin bat.

Gazteen kategoriako bazkideek botoa emateko eskubidea izango dute 16 urtetik aurrera, bai eta Zuzendaritza Batzordeari iradokizunak, proposamenak eta kexak egiteko eskubidea ere, haien azalpen arrazoituaren bidez, eta entzunak izateko eskubidea ere badute, zehapen-espeditentia izapidetzen bazaie.

12. artikulua - Bazkide guztiek, edozein kategoriatakoak direla ere, honako betebeharrak dituzte:

- a) Sozietatearen Estatutuak, Arauak eta bere organoek balioz hartutako erabakiak betetzea.
- b) Elkarteko gainerako bazkideei eta enplegatuei zuzentasuna eta errespetua erakustea
- c) Sozietateko instalazioak, ondasunak eta zerbitzuak arretaz eta arduraz erabiltzea, ezarritako arauekin bat.
- d) Beren datu pertsonaletan, helbidean edo sozietatearentzat garrantzitsua izan daitekeen eta bazkide gisa beregan eragina izan dezakeen beste edozein zirkunstantzian izandako aldaketa ororen berri ematea.
- e) Kuotak ezarritako epean eta moduan ordaintzea. Ordaintzen ez badituzte, derrigorrezko kuotez gain, haien gaineko %15eko errekarua ordaindu beharko dute, gehi sortutako gastuak.

3. kapitulua Diziiplina-araubideari buruz.

13. artikulua.- Estatutu, Arau eta Erabakien kontrako egitateak behar bezala tipifikatu, eta zigortu egingo dira, egindako faltaren larritasunaren arabera zehapena ezarritik. Ondoko arau-haustek falta izango dira:





- a) Sozietateko bazkide, erabiltzaile edo enplegatuei irain egitea eta zor zaien errespetua ez izatea.
- b) Instalazioak eta zerbitzuak behar ez bezala erabiltzea.
- c) Sozietateko ondasun eta instalazioetan kalte edo galerak eragitea, edo Sozietatean utzitako hirugarrenen ondasunetan.
- d) Identifikazio pertsonala beste bati bidegabe lagatzea.
- e) Sozietatearen barruan liskarrak, desordenak, eskandaluak eta istiluak eragitea edo haietan parte hartzea.
- f) Sozietatearen barruan drogak kontsumitu eta trafikatzeta eta mozkortzea.
- g) Jabetzaren aurkako faltak eta delituak.
- h) Jarduera sozialen garapen egokia eragotzi edo oztopatzen duten egintzak.
- i) Sozietatearen interes orokorren jarduketa edo ez-egite desleial edo aurkakoak, edo interes horiek kaltetzen dituztenak.
- j) Ezarritako zehapena urratzea.
- k) Izaera bereko edo antzeko beste edozein arau-hauste.

14. artikulua - Faltak arinak, larriak edo oso larriak izango dira, kontuan hartuta egitateen garrantzia, larritasuna, eragina eta ondorioa, eta baloratu beharreko antzeko beste inguruabar batzuk ere gertatu diren.

15. artikulua - Faltak beren kalifikazioaren arabera zehatuko dira, eta honako hauek hartuko dira kontuan: arau-hauslearen erruduntasun-maila, bere asmoa, adina eta gaitasuna, aurreko batean ere egin izana, eta arau-haustea arindu edo larriagotu dezaketen bestelako inguruabarrak ere gertatu diren..

16. artikulua - Faltak honela zehatuko dira, kalifikazioaren arabera:

- a) Arinak, idatzizko ohartarazpen batekin, edo instalazioetara sartu, erabili eta baliatzeko debekuarekin egun batetik 30 egunera bitartean, edo eskubide sozial guztiak etetearekin epe berean.
- b) Larriak, instalazioetara sartu, erabili eta baliatzeko debekuarekin 30 egunetik 180 egunera bitartean, edo eskubide sozial guztiak etetearekin epe berean.
- c) Oso larriak, estatutu hauetan jasotako eskubide guztiak 180 egunetik 2 urtera bitartean etetearekin, edo Sozietatetik kanporatzearekin.

17. artikulua - Erruduntasun-maila eta faltaren larritasuna alde batera utzita, eragindako kalte guztiak konpondu beharko ditu arau-hausleak edo, hala badagokio, bere legezko ordezkariak.

18. artikulua - Falten erantzukizuna ondoko egoera hauetan azkenduko da:

- a) Zehapena bete bada.
- b) Faltak preskribatu badira.





- c) Zehapenak preskribatu badira.
- d) Arau-hauslea hil bada.
- e) Zehapena kendu bada, errekurtsua jarri ondoren.

19. artikulua - Falta arinak egin eta bi hilabetera preskribatuko dira, larriak sei hilabetera eta oso larriak urtebetera. Preskripzioa espedientea hastea erabakitzen denetik etengo da, eta epea berriro zenbatuko da baldin eta espedientea bi hilabete baino gehiagoz geldirik badago.

20. artikulua - Ezarritako zehapenak sei hilabetera, urtebetera edo hiru urtera preskribatuko dira, falta arinengatik, larriengatik edo oso larriengatik diren, hurrenez hurren.

21. artikulua - Arin edo larritzat jo daitekeen arau-hauste bat egin dela jakiten denean, Zuzendaritza Batzordeak, edo berak eskuordetutako pertsonak, berehala hartuko du erabakia, interesatuari entzun ondoren.

22. artikulua - Egindako arau-haustea oso larritzat jo daitekeenean, Zuzendaritza Batzordeak espedientea hasteko erabakia hartuko du, egitateak argitzeko eta erantzukizunak zehazteko. Horretarako, instruktore bat eta idazkari bat izendatuko ditu, eta egotzitako egitateen eta egindako izendapenen berri emango dio interesatuari, eta entzun ere entzungo dio.

Instrukzioa amaitutakoan, Zuzendaritza Batzordeak erabakia hartuko du, espedientetik ondorioztatzen denarekin bat. Erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesatuari.

Zehapena irmo izan eta biharamunetik hasiko da betetzen ezarritako zehapena.

Egindako faltaren izaera, inguruabarrak, aurreikusitako kalifikazioa eta zehapena kontuan hartuta, Zuzendaritza Batzordeak xedatu ahal izango du, diskrezionalki, espedientea izapidetzen den bitartean, espedientatutako bazkideari Elkarteko instalazioetara sartu, erabili eta baliatzea debekatzea, edo bazkide gisa dituen eskubide guztiak etetea, bi hilabetez gehienez ere. Edonola ere, denbora hori zenbatu egingo da zehapena betetzeko, baldin eta zehapenaren izaerak horretarako aukera ematen baldin badu.

23. artikulua.- Interesatuak Zuzendaritza Batzordeak, edo berak eskuordetutako pertsonak, ezarritako zehapen guztiak berraztertzeke errekurtsua aurkez diezaioke Zuzendaritza Batzordeari, hamar egun naturaleko epean. Falta oso larriengatik ezarritako zehapenak balira, eta berraztertzeke errekurtsua, aldeztu aurretikoa eta nahitaezkoa, ezetsi balitz, gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioke Batzar Nagusiari, egiten duen lehen bileran, izan ohikoa, izan ezohikoa, 30 egunera, berraztertzeke errekurtsua ezesten dela jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

24. artikulua - Zuzendaritza Batzordeak, behar bezala arrazoitutako erabakiaren bidez, bazkide ez diren pertsonak *persona non grata* izendatu ahal izango ditu.

Kasu horretan, erabakia, ahal bada, interesatuari ere jakinaraziko zaio, zeinari Sozietatean mugarik gabe sartzeko debekua ezarriko baitzaio. Etorkizunean bazkide izan nahiko balu, kaleratutako bazkideek bete beharko lituzketen betekizun berdinak bete beharko lituzke.

III. TITULUA SOZIETATEAREN GOBERNU ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZ

1. kapitulua Batzar Nagusiari buruz.

25. artikulua - Batzar Nagusia da Sozietatearen gobernu-organo subirano eta gorena.





26. artikulua - Batzar Nagusiko kide dira ondokoak, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin:

- a) Zuzendaritza Batzordea osatzen duten guztiak.
- b) Sozietateko lehendakari izan direnak, baldin eta bazkide izaten jarraitzen badute.
- c) Atal bakoitzeko ordezkaritza duena.
- d) 33 konpromisario boto-eskubidea duten mila bazkideko talde edo frakzio bakoitzeko. Bazkideak talde horietako batera adskribatuko dira, antzinasun-ordenaren arabera.
- e) Talde horietako bakoitzetik, eta talde horietan hautagarri gisa ageri direnen artetik, 33 konpromisarioak aukeratuko dira, taldeko edo frakzioko kide diren bazkide boto-eskubidedun guztien sufragio unibertsal, libre, zuzen, berdin eta isilpekoaren bidez.
- f) Batzar Nagusia osatzen dutenen botoa pertsonala eta delegaezina da.

27. artikulua - Batzar Nagusia lau urterako aukeratuko da, Zuzendaritza Batzordearekin batera.

28. artikulua.- Batzar Nagusia Ohikoa eta Ezohikoa izan daiteke.

29. artikulua - Batzar Nagusia lehen deialdian behar bezala eratuko da baldin eta osatzen duten kideen gehiengoa bertaratzen bada, eta, bigarren deialdian, edozein dela ere bertaratzen den pertsona kopurua.

Sozietatearen Lehendakaritza, Zuzendaritza Batzordearen laguntzarekin, izango Batzar Nagusiaren buru.

30. artikulua - Ohiko Batzar Nagusia urtean behin egingo da, lehenengo lauhilekoa, aurreko ekitaldiko memoria ekonomikoa, jardueren memoria, balantzea eta kontuak, eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua eztabaidatu eta, hala badagokio, onartzeko, baita galde-eskeak egiteko ere.

31. artikulua - Batzar Nagusiaren beste edozein bilera ezohikoa izango da, eta Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusia osatzen duten kideen ehuneko hogeik, gutxienez, deitu ahal izango dute.

Azken kasu horretan, idatziz aurkeztu beharko da eskabidea, eta eskatzaileen sinadurak egiaztatu beharko dira. Eztabaidatzeko eta bozkatzeko proposatutako gaiak gai-zerrendan sartuko dira nahitaez, eta Batzar Nagusia eskaera egin eta gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da. Zuzendaritza Batzordeak egingo ditu, deialdia egin duten pertsonak ezarritako oinarriekin, Batzar Nagusia egiteko behar diren kudeaketak.

32. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeari dagokio Batzar Nagusia deitzea, bai ohikoa, bai ezohikoa. Batzar Nagusia osatzen duten guztiei jakinarazi beharko zaie, idatziz, bilkura egin baino hamabost egun natural lehenago gutxienez, eta Sozietatearen iragarki-oholean argitaratu beharko da.

Deialdian, tokia, eguna, ordua eta gai-zerrenda agertuko dira. Lehenengo deialdiarekin batera, bigarrena ere egin ahal izango da, prekauzioz egin ere; lehenengorako jarritako ordutik ordu-erdi igaro beharko da.

Ezin da gai-zerrendan ez dauden gaiei buruzko erabakirik hartu.





Batzar Nagusia osatzen duten bazkideek eskatuta deitzen bada, batzorde bat izendatuko dute, gehienez ere hiru pertsonakoa, eta bazkide deitzaileek eskatuta gai-zerrendan sartutako gaia edo gaiak azalduko ditu batzorde horrek Batzar Nagusiaren aurrean.

33. artikulua - Ondoko hauek izango dira Batzar Nagusiaren eskuduntza:

- a) Estatutuak aldatzea.
- b) Sozietateko lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea osatzen duten guztiak kargutik kentzea, baita kontuen zentsoreak ere.
- c) Bazkide-kategoria bakoitzari dagozkion hileko kuota arruntak finkatzea eta aldatzea, baita kuota bereziak edo derramak ere.
- d) Sozietatearen aurrekontu arruntak eta bereziak, kontuak, balantzeak, memoria ekonomikoa eta jardueren memoria aztertzea eta onestea.
- e) Ondasun higiezinak eskuratzea, besterentzea eta trukatzea, eta haien gaineko hipotekak eratzea.
- f) Dirua maileguan hartzea eta zor-tituluak jaulkitzea, haien zenbatekoa Sozietatearen urteko aurrekontu arruntaren ehuneko hogeitau baina handiagoa bada.
- g) Oin berriko obrak eta instalazioak egitea onestea, urteko aurrekontu arruntaren ehuneko hogeitik gorako bolumen ekonomikoa badute.
- h) Sozietatea desagitea edo beste batekin bat egitea erabakitzea.
- i) Errekurtsoak ebaztea.

34. artikulua - Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko dira. Hala ere, bertaratutakoen bi herenen gehiengo beharko da estatutuak aldatzeko, beste batekin bat egiteko eta ondasun higiezinak besterentzeko erabakiak hartzeko. Sozietatea desagiteko erabakiak, gainera, bi herenen gehiengoak Batzar Nagusia osatzen duten legezko pertsonen gehiengo osoa beharko du.

35. artikulua - Bozketak publikoak edo isilpekoak izan daitezke, eta lehendakariak erabakiko du libreki.

2. kapitulua Zuzendaritza Batzordeari buruz

36. artikulua - Batzar Nagusiaren eskuduntzei buruz ezarritakoa alde batera utzi gabe, Zuzendaritza Batzordea Sozietatearen gobernuko, kudeaketa ekonomikoko eta administrazioko kide anitzeko organoa da, eta honako hauek osatuko dute: Lehendakaritza, Lehendakariordetza, Idazkaritza, Diruzaintza eta gutxienez sei eta gehienez hamar kide.

37. artikulua.- Batzordea osatzen dutenak lau urterako aukeratuko dira, Batzar Nagusirako konpromisarioen aukeraketarekin batera, eta behin eta berriz hautatu ahal izango dira epe berdinetan.

38. artikulua - Bazkide helduak edo eskubide osokoak hautatu ahal izango dira Zuzendaritza Batzordeko kargurako.

39. artikulua - Bere gestioak dirauen bitartean, Zuzendaritza Batzordeak hiru postu huts, gehienez, betetzeko ahalmena izango du, eta haren berri emango du gero Batzar Nagusiri.





Zuzendaritza Batzordeko kide den norbaitek bere kargua uzteko, ezinbestekoa izango da idatziz eskatzea, horretara behartzen duten arrazoia azalduta.

Zuzendaritza Batzordeak, bere kideren batek falta bat egin badu, hura kargutik kentzeko eskumenak izango ditu, Lehendakariak proposatuta. Halaber, kargutik kendu ahalko da berarengan konfiantza galduz gero, Lehendakariak proposatuta kasu horretan ere, eta haren beri eman beharko dio Batzar Nagusiari.

Zuzendaritza Batzorde osoak dimisioa emango balu —Batzar Nagusian egin beharko da, arrazoituta—, Zuzendaritza Batzordeak ezin izango ditu bere funtzioak utzi, eta Zuzendaritza Batzorde gisa jarraituko du harik eta Batzar Nagusiak hura ordezkatzeko duen Kudeaketa Batzordea aukeratzen duen arte. Batzorde horren osaera, agintaldia eta funtzioak 44. eta 45. artikuluetan jasotakoak izango dira. Dimisioa erabatekoa izango da Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen erdiari edo gehiagori eragiten badie, baldin eta haien artean lehendakaria badago, edo Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen bi hereni eragiten badie.

40. artikulua - Aurkezten diren hautagai-zerrendetan, kargu bakarra da nahitaezkoa: lehendakariarena.

Lehendakariordetza, Idazkaritza eta Diruzaintza, lehendakariak izendatuko ditu Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen artean.

Hautagai-zerrenda bakarra badago, Zuzendaritza Batzordea izendatuko da, botorik eman beharrik gabe.

Hautagaitza bat baino gehiago egonez gero, bakoitzak bere programa edo ildo nagusiak azaldu beharko ditu bazkideen aurrean, eta, horretarako, bazkideen zerrenda jasotzeko eskubidea izango du, baita azalpen hori emateko behar diren instalazio sozialak erabiltzeko eskubidea ere.

Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenek ez dute ordainsaririk jasotzeko eskubiderik beren karguagatik, hots, doan arituko dira karguan.

41. artikulua- Zuzendaritza Batzordeak eskuduntza hauek ditu:

- a) Sozietatearen administrazioa ordezkatzeko eta eramatea.
- b) Estatutuak, Arauak eta balioz hartutako Erabakiak aplikatzeko, haien inguruko zalantzak argituta.
- c) Bazkideak onartzea, zehatzea eta kaleratzea Estatutuetan ezarritakoarekin bat.
- d) Sarrera-kuotak ezartzea eta hirugarrenei bazkide-izaera lagatzeko eskubideari dagokiona aplikatzeko, bai eta eskubide hori aldi baterako etetea ere, arrazoi arrazoitu eta nahikoak badaude, eta haren berri ematea hurrengo Batzar Nagusiari.
- e) Hileko kuota urtero eguneratzea, aurreko urtean Kontsumorako Prezioen Indizeak (KPI) Nafarroan izandako aldaketa osorik eta automatikoki aplikatuta (KPI Estatistikako Institutu Nazionalak edo bere ordezkari organismoak jakitera ematen du). Estatutu hauen 2. ataleko 67. artikulua bildu eta araututako eguneratzearen aplikazioa baino ez da.
- f) Batzar Nagusiak, ohikoak zein ezohikoak, deitzea eta lehendakariari laguntzea bere kargua gauzatzeko Batzar Nagusietan, eta haietan erabakitakoa betetzea.





- g) Zuzendaritza Batzorderako eta Batzar Nagusiko konpromisarioetarako hauteskunde orokorrak deitzea.
- h) Sozietate osoak erreferenduma egitea deitzea, gaiaren garrantziak hala eskatzen duenean.
- i) Batzar Nagusiari proposatzea ekitaldi ekonomikoak eta haien kontuak, aurrekontuak eta urteko memoriak onartzeko, eta aurrekontu bereziak ere.
- j) Enpleguak, teknikariak eta langileak kontratatzea eta kaleratzea, aldi baterako edo mugarik gabe.
- k) Instalazioak sortu, hobetu eta zaintzeko eta zerbitzuen funtzionamendurako beharrezko proiektuak agintzea eta obrak burutzea, baldin eta haien zenbatekoa Sozietatearen urteko aurrekontu arruntaren ehuneko hogeitau baina txikiagoa bada.
- l) Sozietatearen eta Sozietatearentzako zerbitzu-emakidak hitzartzea eta sarrerren eta errentamenduen prezioak finkatzea, antolamendu horietarako neurri egokiak hartuta.
- m) Bere eskumenak gauzatzean behar diren eskritura publiko eta kontratu pribatu guztiak egitea eta ematea, horretarako beharrezko itun, klausula eta baldintzak emanda, eta aseguru-polizak sinatzea.
- n) Kontu korronteak, aurrezki-libretak eta ezarpenak irekitzea, eta txekeak eta merkataritza-zirkulazioko gainerako dokumentuak haien kontra igortzea.
- o) Zorrak eta betebeharrak aitortzea.
- p) Erakunde publikoei, baimenduei, pribatuei eta pertsoneri dirulaguntzak eskatzea, eta Sozietatearentzat egokien jotzen denerako erabiltzea.
- q) Instalazioen erabilera xede sozialak garatzeko gordetzea eta baliatzea, zehazki txapelketak, entrenamenduak, kontserbazio-lanak, mantentze-lanak edo beste edozein jarduera gauzatzeko.
- r) Atal guztien funtzionamendua eta jarduera zuzentzea eta kontrolatzea Sozietatearen xedea betetze aldera; horretarako, atal horien bilera edo bilkuretan parte hartu ahal izango du, bidezkotzat jotzen badu, horretarako izendatutako batzordekidearen edo batzordekideen bitartez.
- s) Esklusiboki Batzar Nagusiarenak ez diren ahalmen eta eskuduntza guztiak.
- t) Eta, oro har, Sozietatearen jarduerak sustatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren kultura-, kirol-, ekonomia- eta administrazio-neurri guztiak kontratatzea eta aplikatzea.
- u) Sozietatearekin eta bere xedeekin zerikusia duten eta Sozietatearentzat beharrezkoak edo komenigarriak diren gainerako guztiak.

42. artikulua - Zuzendaritza Batzordea, gutxienez, hilean behin bilduko da, lehendakariak deialdia egin ondoren. Deialdia Zuzendaritza Batzordeko Idazkaritzak jakitera emango du, bilkura egin baino 24 ordu lehenago, lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda adierazita. Hala ere, Zuzendaritza Batzordea balio osoz eratutzat jo daiteke Zuzendaritza Batzordea osatzen duten guztiak Sozietatearen egoitzan daudenean eta aho batez hala erabakitzen badute.





Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kideen herenak eskatuta ere deitu beharko da.

43. artikulua - Zuzendaritza Batzordeak erabakiak hartzeko, bertaratutako botoen gehiengoa beharko da. Lehendakariak kalitatezko botoa izango du bozketetan berdinetak desegiteko.

Zuzendaritza Batzordea balioz eratzeko, gutxienez kideen erdiak bertaratu beharko dira.

Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, hurrengo bilkuran onetsi ondoren edo batzarra egin ondoren.

44. artikulua - Zuzendaritza Batzordea kargutik kendu ahal izango da Ezohiko Batzar Nagusian zentsura-mozioa aurkeztu eta onartzen bada. Zentsura-mozioak Batzar Nagusiko kideen ehuneko hogeia sinadurarekin abalatuta egon beharko du.

Onartzeko, Batzar Nagusian daudenen bi herenen aldeko botoa beharko du, eta, betiere, aldeko botoak Batzar Nagusia osatzen dutenen gehiengo osoa badira gutxienez. Bai zentsura-mozioaren aldeko jarrerak, bai kontrakoak, berdintasunez azaldu eta bozkatuko dira Batzar Nagusian.

Zentsura-mozioa idatzi oinarriidun eta arrazoitu baten bidez egin behar da. Sozietatearen administrazio-bulegoetan aurkeztu behar da, Batzar Nagusia deitzeko eskaera barne hartuta, gehienez ere hilabeteko epean egiteko. Kudeaketa Batzorde bat izendatzeko proposamena ere jaso beharko du, bost pertsonakoa, haien izenak eta Lehendakariaren kargua adierazita, zeina, mozioak aurrera eginez gero, Sozietatearen gobernuaz eta administrazioaz arduratuko da, aldi baterako, harik eta hurrengo hauteskundeak deitu arte, Batzar Nagusirako konpromisarioen hauteskundeekin bat.

45. artikulua - Kudeaketa Batzordearen agintaldia, bai zentsura-mozioak aurrera egitearen ondorioz izendatutakoarena, bai Zuzendaritza Batzordearen dimisioaren ondorioz izendatutakoarena (pertsona kopuru bera izango dute biek), ordeztu duen organoaren hauteskunde-agintaldia amaitu arte luzatuko da.

Horrela hautatutako Kudeaketa Batzordeak Estatutuek Zuzendaritza Batzordeari ematen dizkieten eskuduntza berberak izango ditu.

3. kapitulua Lehendakariari eta Lehendakariordetzari buruz.

46. artikulua - Lehendakariari Sozietatearen organo exekutiboa da, haren gobernu- eta administrazio-organoko nagusiak ordezkatzeko ditu, eta haien erabakiak betearazten ditu.

47. artikulua.- Lehendakariak eskuduntza hauek ditu:

- a) Lehendakariordetzako, Idazkaritzako eta Diruzaintzako arduraduna izendatzea Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen artean, eta beste kargu batzuk ere, baita haiek guztiak kargutik kentzea proposatzea.
- b) Zuzendaritza Batzordea eta Batzar Nagusia deitzea eta haien buru izatea, eta bateko zein besteko eztabaidak gidatu eta bilkurak amaitu.
- c) Sozietatearen eta bere organoen legezko ordezkari izatea.
- d) Balioz erabakitako ordainketak agintzea.





- e) Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiak aldez aurretik onartutako egintzak eta kontratuak ematea, Sozietatearen izenean.
- f) Sozietatearen sinadura ordezkari gisa erabiltzea, eta ziurtagiriak, igorpenak eta kontuak ikus- onestea.
- g) Sozietatearen barruko atal, batzorde eta ordezkartzen buru izatea, egoki baderitzo.
- h) Sozietateko enplegatuak zuzentzea eta kargutik kentzea, neurria premiazkoa bada, eta egindakoaren berri eman Zuzendaritza Batzordeari.
- i) Premiazko arrazoiengatik beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea, eta Zuzendaritza Batzordea deitzea egindakoaren berri eman diezaion.

48. artikulua - Lehendakariordetzak bere gain hartuko du Lehendakaritza kargu hori hutsik dagoenean, edo kanpoan edo gaixorik dagoenean.

4. kapitulua Idazkaritzari buruz.

49. artikulua.- Idazkariak honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bilkuretarako deialdiak egitea eta bideratzea.
- b) Zuzendaritza Batzordearen edo Batzar Nagusiaren bilkuretako aktak egitea eta bilkura horiei dagozkien liburuak zaintzea.
- c) Sozietatearen urteko memoria idaztea.
- d) Ondasunen inbentario-liburua eta bazkideen fitxategia eramatea, eta Sozietatearen dokumentazio-artxiboa zaintzea.
- e) Ziurtagiriak ematea eta erabakiak helaraztea, Lehendakaritzaren oniritziarekin.
- f) Eta, oro har, Sozietatearen funtzionamendu administratiboari dagozkion jarduera guztiak egingo ditu.
- g) Idazkaria ez dagoenean, kargua hutsik dagoenean edo gaixorik dagoenean, lehendakariak Zuzendaritza Batzordekoen artean izendatzen duenak ordeztuko du.

5. kapitulua Diruzaintzari buruz.

50. artikulua - Diruzaintzako arduradunak Sozietatearen funtsen mugimenduari dagokion guztia bere gain hartuko du, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du eta kontuak itxiko ditu, eta haren guztiaren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari. Bere ardurapean, Sozietatearen balore eta gordailu guztiak zainduko dira.

Bere sinadurarekin, Kontabilitate Liburuak baimenduko ditu, eta Kutzako mugimendua eraman. Kargua uztean, kontabilitateko egoera-orria formulatuko du.





6. kapitulua Kideei buruz.

51. artikulua - Kideek Zuzendaritza Batzordearen eginkizunetan parte hartuko dute eta, gainera, beren gain dituzten edo une bakoitzean agintzen zaizkien atal, ordezkari eta batzordeez arduratuko dira bereziki.

IV. TITULUA. ATALEI ETA ORDEZKARIEN BATZORDEARI BURUZ

52. artikulua - Sozietatearen xede soziala garatzeko egokitzat jotzen diren bezainbeste atal sortu ahal izango dira, bai Zuzendaritza Batzordearen proposamenez, bai bazkide interesatuen ekimenez.

Kirol-atalak dagozkien kirol-federazioei atxiki ahal izango zaizkie, Zuzendaritza Batzordeak alde zuzenetik ezagututa eta onartuta.

53. artikulua - Atal bakoitzaren funtzionamendua autonomoa izango da, eta dagokion jardueraren berezko garapena gauzatzeko ahalmena izango du, Zuzendaritza Batzordearen koordinazioaren eta zuzendaritza gorenaren pean.

Atalek kide anitzeko zuzendaritza-organoak izan ditzakete, demokratikoki hautatuak, bai eta funtzionamendu-arauak ere, Sozietatearen Zuzendaritza Batzordeak onartu beharko dituenak.

Ezein sailek ezin izango du, inola ere, aurrekontuz kanpoko gasturik konprometitu, eta, arrazoi bereziren bat dela-medio haren beharra badago, gastu horiek konprometitu aurretik, dagokion eskaera egin beharko dio Zuzendaritza Batzordeari, zeinak egokitzat jotzen duena ebatziko baitu.

54. artikulua - Atal bakoitzak, bera osatzen dutenen artean, atalaren ordezkari eta gauzatzeko duen pertsona hautatu eta proposatuko du. Hautaketa hori Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi beharko zaio.

Beharrezko ordezkari gabe, Atalek ezin izango dute jarduerarik gauzatu.

55. artikulua - Atalaren ordezkari eta dutenek Ordezkarien Batzordea eratuko dute, eta Atalaren jarduerak behar bezala garatzen direla zaintzea izango dute helburu. Zuzendaritza Batzordearen kontsulta-organoa izango da atalaren inguruko gai espezifikoetarako.

56. artikulua - Ordezkariekin eginkizunak hauek izango dira:

- a) Jardueren urteko programa prestatzea.
- b) Atalaren urteko aurrekontuaren proiektua idaztea, Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko.
- c) Egindako jardueren guztien urteko memoria, Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko.
- d) Atala Sozietatearen organoen eta hirugarrenen aurrean ordezkari eta, Atalari dagokion jardueraren esparruan.
- e) Bere ataleko buruzagien, laguntzaileen eta parte-hartzaile aktiboen urteko errola egitea, Zuzendaritza Batzordeari emateko.





- f) Atalaren materiala arreta handiz zaintzea eta besteek ere zain dezatela behartzea, eta urtero egin haren inbentarioa.
- g) Atala ordezkatzeko Ordezkariei Batzordean.

V. TITULUA SOZIETATEAREN BESTE ORGANOEI BURUZ.

57. artikulua - Elkartearen eragiketa ekonomikoen organo ikuskatzaile bat egongo da, **Kontuen Zentsoreak** izenekoak. Batzar Nagusiak hautatu eta izendatutako hiru pertsonak osatuko dute, Batzar Nagusia hautatu eta hurrengo bilkuran. Eta kontu-zentsoreak berritzearekin batera utziko du agintaldia.

Organo horren **helburua** da Sozietatearen jardura ekonomikoa egiaztatzea eta informazio horren berri ematea Ohiko Batzar Nagusiari

VI. TITULUA. HAUTESKUNDE-ARAU BIDEARI BURUZ.

58. artikulua - Hauteskunde Batzordea lehendakaria aukeratuko duen kide anitzeko organoa da, eta bost pertsonak osatzen dute. Hari dagokio hauteskunde-prozesu osoa behar bezala egitea, batez ere bozketak. Egiztatuko du bozkatu nahi duen bazkideak boto-eskubidea duela, eta botoak zenbatuko ditu. Hori guztia, aurkeztutako hautagaitzetako kontu-hartzaileek gainbegiratuta.

Hauteskunde Batzordeko kideak Batzar Nagusiak hautatuko ditu, hura hautatu ondoren egiten den lehenengo bilkuran, eta kargua utziko dute Hauteskunde Batzorde berria hautatzean.

59. artikulua - Sozietatearen organoetan karguak dituztenek beren funtzioetan jarraituko dute beren ondorengoak karguaz jabetu arte.

60. artikulua - Hauteskunde-prozesuaren egitateak dira ondokoak:

- a) Hauteskundeetarako deialdia jakinaraztea boto-eskubidea duten bazkide guztiei, hauteskunde-egutegiarekin batera.
- b) Hautagai-zerrendak onartzea eta argitaratzea.
- c) Bozkatzeko eskubidea duten bazkideek bozkatzea.
- d) Hautetsiak aldarrikatzea.
- e) Aurkezten diren erreklamazio eta eskaerak ebaztea, Jurisdikzio arruntean formulatzea bazter utzi gabe.

61. artikulua - Hautagai-zerrendak aurkezteko epea hauteskundeetarako deialdia egiten denetik hauteskundeak egin baino 30 egun lehenago artekoa izango da, eta gutxienez 30 egun iraungo du.

Konpromisario izateko hautagai diren bazkideek idatziz aurkeztu beharko dute hautagaitza, bozketarako adierazitako data baino hogeita hamar egun lehenago. Hautagai-zerrenda nahikorik ez badago, aurkeztutakoak besterik gabe aukeratuko dira, eta gainontzekoak, estatutuetan jasotako kopurua osatu arte, zozketa bidez, beti ere mila bazkideko edo frakzioko talde bakoitzaren barruan.

Zuzendaritza Batzordeko kideak hautagaitza itxiaren eta osoaren bidez hautatuko dira. Hautagaitza hauteskunde-eguna baino hogeita hamar egun lehenago aurkeztuko da.





62. artikulua. - Baliozko hautagai-zerrendak onartu ondoren, boto-eskubidea duten bazkideei jakinaraziko zaizkie, Sozietateko iragarki-oholean jarritz.

63. artikulua. - Posta bidezko botoa onartuko da, baldin eta gutun-azalean bidaltzailearen izen-abizenak agertzen badira, eta barruan datu hauek:

- noren aldeko botoa
- boto-emailearen sinadura autografoa
- nortasun agiri nazionalaren fotokopia
- bazkide-txartelaren fotokopia.

64. artikulua. - Zuzendaritza Batzorderako hautagai-zerrendarik bozkatuena aldarrikatuko da hautetsi, eta kargu horretarako agertzen den bazkideak hartuko du lehendakaritza. Boto gehien lortzen dituzten bazkideek Batzar Nagusiko konpromisarioen kargua izango dute.

65. artikulua. - Zuzendaritza Batzorderako hautagai-zerrenda bakarra badago, bozketarik egin beharrik gabe aldarrikatuko da.

Era berean, konpromisarioetarako hautagai-zerrendak boto-eskubidea duten mila bazkideko talde bakoitzeko 33ra iristen ez badira, hautetsi aldarrikatuko dira.

66. artikulua. - Zuzendaritza Batzorderako hautagai-zerrendarik aurkezten ez bada, hauteskundeak bertan behera geratuko dira, baita pertsona konpromisarioena ere. Une horretan dagoen Zuzendaritza Batzordeak aurrera jarraituko du hauteskunde berriak egin arte, lau hilabeteko epean. Bigarren kasu horretan ere hautagai-zerrendarik aurkezten ez bada, Zuzendaritza Batzordeko kideak, hamar, zozketa bidez hautatuko dira eskubide osoko bazkideen artean, eta haien artean aukeratuko dute Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria.

Horrela hautatutako karguak betetzea nahitaezkoa izango da.

VII. TITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOARI ETA ONDAREARI BURUZ.

1. kapitulua Araubide ekonomikoari buruz.

67. artikulua. –

1. Honako hauek izango dira Sozietatearen baliabide ekonomikoak:
 - a) Bazkide berrien sarrera-kuotak
 - b) Aldizkako kuota arruntak.
 - c) Batzar Nagusiak onartutako aparteko ekarpenak.
 - d) Bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen ekoizkinak.
 - e) Legezko edozein jardueraren bidez lortutako sarrerak
 - f) Legez jaso daitezkeen diru-laguntzak, ondareak eta dohaintzak.
2. Bazkide-kategoria bakoitzari dagozkion ohiko hileko kuotak urtero eguneratuko dira, urtarrilean, urte osorako, aurreko urtean Nafarroan izandako Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) aldaketa osorik eta automatikoki aplikatuta (KPI Estatistikako Institutu Nazionalak edo bere ordezkio organismoak jakitera ematen du).





3. Elkartean hamar urte baino gehiagoko antzintasuna duten bazkideen kasuan, ordaindu beharreko hileko kuota kalkulatzeko, aurreko 2. atalean araututako eguneratsetik ateratzen den kopurua murriztuko da, irizpide honi jarraikiz:

- 85 eta 90 urte bitarteko bazkide direnen kasuan, eguneratze horretatik ateratzen den kopurua % 25 murriztuko da.

- 91 eta 95 urte bitarteko bazkide direnen kasuan, eguneratze horretatik ateratzen den kopurua % 50 murriztuko da.

- 95 urtetik gorako bazkide direnen kasuan, eguneratze horretatik ateratzen den kopurua % 75 murriztuko da.

68. artikulua.- Aurrekontua urtero egingo da, eta Zuzendaritza Batzordeak formulatu beharko du, eta Batzar Nagusiak, onartu, baztertu edo zuzendu.

69. artikulua. - Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari aurkeztuko dio, hari baitagokio aurreko ekitaldiaren onarpena, likidazioa eta balantzea.

70. artikulua. - Sozietateak bere xedeak betetzeko erabiliko ditu bere baliabideak, Estatutuetan ezarritakoarekin bat. Bere ondasunak industria-, merkataritza-, lanbide- edo zerbitzu-helburuetarako erabili ahal izango ditu, edo izaera bereko jarduerak egin, soil-soilik balizko onura horiek bere xede soziala lortzeko erabiltzen badira oso-osorik, eta ezin izango da, inola ere, irabazirik banatu bazkideen artean.

2. kapitulua Ondareari buruz

71. artikulua.- Agrupación Deportiva San Juan/Donibane Kirol Elkartea da bere ondarea osatzen duten ondasun, instalazio, eskubide eta betebeharrak guztien titular eta jabe bakarra.

Dagokion liburuan, ondare-multzoko osoaren ohar zehatza eta xehatua jasoko da, inbentario bidez, bai eta balorazio egokia eta eguneratzea ere lau urtean behin.

VIII. TITULUA. BAZKIDE-EGOERA LAGATZEKO ESKUBIDEARI BURUZ.

72. artikulua.- Bazkide guztiek eskubidea dute bazkide ez diren beste batzuei izaera hori lagatzeko, lagapenaren zenbatekoaren zati bat jasoz haren truke.

Lagapen-hartzaileak ordaindu beharreko zenbatekoa bazkide berrientzako sarrera-kuotaren zenbatekoa izango da, kategorien arabera. Zuzendaritza Batzordeak ezartzen du kuota hori.

Zuzendaritza Batzordeak aldi baterako eten ahal izango du eskubide hori gauzatzea, erabaki arrazoitu bidez, baldin eta bazkide-kopuru egokia lortu ez bada, lehendik dauden edo etorkizunean egin daitezkeen instalazioen arabera, Sozietatearen beharrezko ekonomikoen arabera edo Sozietateari komeni zaizkion beste arrazoi batzuen arabera, eta haren berri emango dio hurrengo Batzar Nagusiari.

73. artikulua. - Bazkide-egoera lagatzeko eskubidea gauzatzeko, beharrezkoa izango da lagapen-hartzaile ez-bazkide bat izatea itxarote-zerrenda ofizialean, lagatzailearen klase edo kategoriatik bereko bazkide-izaera hartuko duena.

Bazkide-izaera hartzen duen lagapen-hartzaileak sarrera gisa ezarritako zenbatekoa eman beharko dio Sozietateari, eta Sozietateari dagokio lagapen-eskubidearen zenbatekoa bazkide lagatzaileari likidatzea.





74. artikulua. - Bazkide lagatzaileek bazkide-izaera lagatzeagatik jasoko dituzten zenbatekoak honela kalkulatu dira: sarrera-kuota gisa ezarritako zenbatekoa bazkide lagatzailearen antzintasunaren arabera zehaztutako koefizienteekin biderkatuz:

Antzintasun-urteak	Koefizienteak
Honetatik hasita: 1 urte	0,700
2 urte	0,650
3 urte	0,600
4 urte	0,550
5 urte	0,500
6 urte	0,450
7 urte	0,400
8 urte	0,350
9 urte	0,300
10 urte	0,250
11 urte	0,200
12 urte	0,150

IX. TITULUA. SOZIEATEAREN LIBURUEI BURUZ.

75. artikulua. - Sozietateak jarraian adierazten diren liburuak edo euskarri informatikoak eduki beharko ditu:

Bazkideen erregistro-liburua, non datu hauek jaso behar baitira: izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eta bazkidearen zenbakia, eta, hala badagokio, Elkartean dituzten ordezkaritza-, gobernu- edo administrazio-karguak, altaren eta bajaren datak zehaztuta, bai eta Sozietatean duten karguaz jabetu izana edo utzi izana, eta jarritako zehapenak ere, halakorik balego.

Akta-liburua, non Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bilkurak direla-eta egiten diren aktak transkribatuko baitira. Aktak Zuzendaritza Batzordeko lehendakariak eta idazkariak izenpetuko dituzte.

Kontabilitate-liburuak eta ondasunen inbentario-liburuak, non Sozietatearen ondarearen eta eskubide eta betebeharrak zein diru-sarrera eta gastuen zerrenda jaso behar baita, baita haien jatorria eta inbertsioa edo xedea zehaztu ere, aplikatu beharreko legeriarekin bat.

X. TITULUA. SOZIEATEAREN DESEGITEARI BURUZ.

76. artikulua. - Sozietatea bazkideen borondatez, bere xedeak bete ezin dituelako edo epai judicial irmo batengatik desegin daiteke.

Lehenengo kasuan, beharrezkoa izango da Ezohiko Batzar Nagusian hartutako erabakia, bertaratutako bazkideen bi herenen aldeko botoarekin eta, beti ere, Batzar Nagusia osatzen duten legezko pertsonen gehiengo absolutua suposatzen badute.

77. artikulua. - Batzar Nagusiak desegitea erabakitzen badu, Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du Batzorde Nagusiak, bost bazkidek osatua. Haien artetik, lehendakaria hautatuko dute, eta dauden funtsez arduratuko da, Sozietateak bete gabe dituen betebeharrak bete ondoren, soberakinak, halakorik balego, Iruñeko Udalari emateko, jabetzan.





AGRUPACIÓN
DEPORTIVA **DONIBANE**
SAN JUAN K I R O L
E L K A R T E A

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. - Estatutu hauek, bazkideen Batzar Nagusiak behin betiko onartu eta dagokion legezko Erregistro Administratiboan inskribatu eta gordailatu ondoren, aurrekoak ordeztuko dituzte, indargabetuta geratuko direnak.

